

1. **ADIERAZPEN ETA INFORMAZIO-ASKATASUNAK: Ikuspegi orokorrak (informaziorako eskubidea)**

Guretzat marko juridiko garrantzitsuenak (buruan izan behar dugun eskema):

- Arauak, horren barruan konstituzioaren 20. artikulua eta artikulua hori garatuko duten lege ezberdinak + lege organiko ezberdinak.
- Bestalde, Konstituzioaren 10.2 artikulua dioena: nazioartean espainiar estatuak sinatu dituen testuak.
- Jurisprudentziari dagokionez (auzitegiak hartzen dituen erabakiak): konstituzio auzitegiak, auzitegi gorena eta audientzia nazionala.
- Nazioarteko auzitegiak: Tribunal Europeo de derechos humanos (Estrasburgokoa), eta Luxemburgokoa.
- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 19. Artikulua.** Hau da Declaracion Universal de Derechos Humanos. Balio etikoak eta moralak ditu testuak, bai eta ez juridikoak.
- **1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Ituna, 19. Artikulua:** Kasu honetan ere askatasun eskubidea aldarrikatzen da.
- **Dictamen del Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer en virtud del Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer (58º periodo de sesiones).** Hau oso mugatuta dago, gomendioak soilik onartzen dituelako, soilik gomendioak daude idatzita. Ez dira epaia (sententzia).

DRIVE

Konstituzioaren 20. Artikulua interpretazioa giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenaren arabera

Konstituzioaren 10.2 artikulua arabera, oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzerakoan GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALARI begiratuko zaie. Gai hori batzen duten bi hitzarmen nagusi:

- **1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko ituna (19. Art.).**
- Eta batez ere: **1950ko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europar Hitzarmena (10. Art.).**

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA, 19. ARTIKULUA: Aldarrikapen honek izaera programatikoa dauka (ez dela derrigorrez bete beharrekoa, orientazio bat da), besterik gabe balore bezala jo daiteke. Barne testuak interpretatzeko balio du. Hau da, garrantzi sinbolikoa eta indar moralak duela, baina EZ balio juridiko zuzenik ezta aplikaziorako sistema eraginkorrik. Babestu behar diren, eta gizaki izateagatik ditugun eskubide garrantzitsuenak bedekintzen ditu. Komunikazioarekin zerikusia duten askatasunei dagokienez, 19. Artikulua zera dio: *“Gizabanako guztiek dute iritzi- eta adierazpen-askatasun”*.

- **66ko ESKUBIDE ZIBILEN ETA POLITIKOEN NAZIOARTEKO ITUNA 19. ARTIKULUA:** Hau ere horrelakoa da, “recomendar”. Bakarrak gomendioak ematen ditu, ez epailak (sententzia). Adibidez, recomendamos que indemniceis a esta persona....” Baina ez ditu behartzen indemnizatzen. Hitzarmen honek, bere aplikazioa bermatzeko **Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea** du.

- **1950eko GIZA ESKUBIDEEN ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK BABESTEKO EUROPAR HITZARMENA 10. ARTIKULUA:** Europar hitzarmena ez da Europar Batasuna, ez da Consejo Europeo, baizik eta Consejo de Europa. Eskubide honek adierazpen askatasuna jasotzen du, eta era berea, horrek bere baitan hartzen ditu iritzirako askatasuna eta informazioa jasotzeko zein komunikatzeko askatasuna. Lege bat da, eta bi eskubide ditu. Testua garrantzitsua da honengatik:

- Babes minimo bat jasotzen du, oinarrizko babesa. Posible da babes minimo hori baino gehiago babestea, baina gutxiago ez.
-
-
- Auzitegi horretara jo dezakete estatuak zein herritarrek. Estatu batek beste estatu baten kontra egin dezake, pertsona batek estatu zintzale baten kontra, edo pertsona batek pertsona baten kontra (estatuak ez didalako babestu era egokian pertsona horren aurrean).
- Hitzarmen honen interpretaziorako, **Giza Eskubideen Europar Auzitegiak (GEEA)** (Estrasburgokoa) eratu zen. Epailak (sententziak) onartzen ditu, eta epai horiek barne eremuan exekutatu behar dira.

Zigorrak inposatzen dituzte, eta kasu askotan, kalte ordainak eta indemnizazioak aurreikusten ditu auzitegi honek. Laburbilduz, honen epaiak garrantzitsuak dira zuzenean exekutatu behar diren epaiak direlako, eta bestetik, interpretazio irizpideak zehazten dituelako auzitegi honek.

GARRANTZITSUENA!!! Auzitegi honek bere erabakiak hartu behar dituenean adierazpen askatasunaren inguruan, hiru puntu edo hiru elementu hartu behar ditu kontuan adierazpen askatasuna errespetatzen den ala ez ebazteko:

1. Muga, lege batean aurreikusia egon behar da. Lege batean jasota egon behar da muga.
2. Mugak jarri behar dira interes edo balore garrantzitsu bat babesteko. Ondasun juridiko garrantzitsu bat babesteko (segurtasun nazionala, ordenaren defentsa eta delituaren prebentzioa...) (orden y prevencion del delito, defensa o prevencion de la salud y de la moral...).
3. **Aplikatzeko zailena:** mugak beti proportzionala izan behar du. Hau da, beharrezkoa izan behar da gizarte demokratiko batean muga hori inposatzea. Justifikatu behar da beharrezkoa dela adierazpen askatasuna mugatzea. Estatu bezala mugatu nahi baldin bada adierazpen askatasuna, frogatu behar da muga hori proportzionala dela. Babestu eta mugatu nahi duzunaren artean proportzionaltasuna egon behar da. **Proportzionala den ala ez nola jakin?** Kasu bakoitzean aztertzen da ea proportzionala den ala ez. GEEAk uzten dio estatu bakoitzari interpretatzen proportzionaltasuna, askatasuna uzten dio estatuei.

Europar konstituzioa, tribunal?

Europar Batasunaren eremuan ere badago (Tribunal de Justicia de la Union Europea) "Carta Europea de derechos fundamentales". Adierazpen askatasuna eta informaziorako eskubidea jasotzen dira. Honen auzitegia oso garrantzitsua da ere. Gai batzuetan oso garrantzi.

BIDEOA:

- Zer egikaritzen (ejercer) ari da kasu honetan aktorea?: Informaziorako eskubidea ala adierazpen askatasuna?
- Eskubidea al dago iritziak eta informazioak era ezberdindu batean jasotzeko? Zein irizpide dago informazioak eta iritziak ezberdintzeko?
- Eskubiderik eduki beharko genuke informazioa era objektibo batean jasotzeko?

POSIBLE DE INFORMAZIO ETA IRTZIAK DESBERDINTZEA EGUNEROKO HEDABIDEETAN?

Ikusmolde bateratutik, ikusmolde dualera. Izan ere, Konstituzioaren 20. Artikuluan oinarritzko eskubide ezberdin gisa agertzen dira adierazpen-askatasunerako eta informazio-askatasunerako eskubideak. Baina hasieran, ez doktrinak ez jurisprudentziak ez zuten adierazpen- eta informazio-askatasunak ezberdintzen. Horri, **ikusmolde bateratua** esaten zaio: adierazpen-askatasuna herritarrek dutena, eta informazio-askatasuna kazetariak dutena.

Konstituzio Auzitegiak tesi hori ez dela zuzena adierazi du eta dagoeneko bazterturik dago. Esubide horiek edukiaren arabera bereizi behar dira, eta ez horien subketu tituludunen arabera. Horrenbestez, Informazio edo Iritzi askatasunaren aurrean gauden jakiteko, informatzailearen azken helburua, edo asmoa aztertzen da.

Gauza bat adierazpen askatasuna da (iritzia), beste bat informaziorako eskubidea (egiazko informazioa). Printzipioz, ezberdinduta agertu behar dira baina zaila da zeren aurrean gauden jakitea. Hori jakiteko **elementu preponderante** (nagusia) kontuan hartu behar da, hau da, azken asmoa. HAU DA, ZEIN DEN INFORMATZAILEAREN INTENTZIOA.

Ikusmolde **dualaren** (bateratuaren aurkakoa dena) aldarrikapenean ageri den bezala, adierazpen-askatasunaz baliatzen denari ezin zaio egiazko froga eskatu. Beraz, adierazpen-askatasunaren egikaritzari dagokionez, ez du egiazkotasunaren barne-mugak jokatzen. Beraz, Konstituzio Auzitegiarentzat, adierazpen-askatasuna informazio-askatasuna baino zabalagoa da. Izan ere, adierazpen-askatasunak informazio-askatasunak baino muga gutxiago ditu.

Nolanahi ere, informazio-askatasunean subjektuak huts egin dezake informatzerakoan eta ideia ez egiazkoak plazaratu. Kasu horretan, exigituko zaiona da konprobatzea berak plazaratutako gertaerak, argitaratu aurretik errealitatearekin kontrastatu izan dituela.

Ikusmolde dualari kritika

1. Askotan zaila dela ezberdintzea adierazpen-askatasunaren eta informazio-askatasunaren artean. Horregatik kontuan hartu behar dena esan bezala, elementu preponderantea da. Hau da, informazioa plazaratu duenaren intentzioa zein den.

Nolanahi ere, badago salbuespen bat: “**erreportaje neutralak**”. Zuk argitaratzen duzula beste pertsona batek esandako zerbait. Hori neutrala da nik ez dualako ezer aportatzen. Kasu horietan adierazpenaren erantzukizuna, adierazpen hori egin dutenei leporatuko zaie, eta ez hedabideari.

2. Kasu batzuetan Konstituzio Auzitegiak ulertu izan du “espekulazioak” informazio-askatasunaren egikaritza direla.

3. Eleberri forma duten kazetari-ikerkuntza liburuetan, benetako pertsonaiak fikziozkoekin nahasten dira. Nahiz eta ikus-entzuleei benetako gertaeren bertsioa helarazteko informazioa forma dramatikoagoan erabiltzen den arren, informazio-askatasuna egikaritzen dela ulertu behar da. Nolanahi ere, modalitate honek informazio-kutsu handiagoa du literarioa baino. Horrenbestez, eleberri bateko pertsonaiak pribatuak badira eta horien ingurunean ezagugarriak eta identifikagarriak badira, ohorea, intimitatea eta abarren babeserako irizpide berberak aplikatu daitezke.

2018/02/20

Konstituzioaren 20. Artikuluak, informazio-jarduerari lotutako askatasunak jasotzen ditu. Hala nola, adierazpen-askatasuna, egiazko informazioa komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea, sekretu profesionala eta kontzientzia klausula... Baina, hedabideak sortzeko eskubidea informazioa libreki komunikatzeko eskubidearen baitan zegoen ala ez inguruko eztabaida nabaria egon zen. Hau da, **informazio-enpresak sortzeko askatasuna artikulu horretan sartzen den ala ez.**

Kontrajarriak diren bi ildo ageri dira:

1. Alde batetik batzuk baietz diote, 20. Artikuluak dioenez “egiazko informazioa libreki komunikatzea edo jasotzea **“edozein hedabideetatik”**”, horretan oinarrituta, hauek diote Estatuak hedabideenganako parte hartzea izan dezaketela, baina herritarrek eskubidea dutela informazio-enpresak sortzeko.
2. Aurkako noranzkoan diotena da Konstituzioaren 20. Artikuluan ez dela edozein informazio-enpresa sortzeko askatasuna sartzen. Eskubidearen egikaritza eta bere enpresa-edukia bereizi beharko lirakeela. Ez da Konstituzioak informazio-enpresak sortzeko eskubidea babesten ez duenik, baizik eta bere babesa

Konstituzioaren 38. Artikuluan dagoela (hau da, enpresa-askatasuna aintzatesten duen artikuluan) eta ez 20. Artikuluan.

Beraz, 20. Artikuluak jasotzen duen, baina auzitegiek onartu ez duten legea da hedabideak sortzeko eskubidearen legea. Hedabideen sorkuntzarako kontrol bat beharrezkoa da. Beraz, hedabide bat sortu nahi bada eta TDTan bezalako muga teknikoak badaude, hedabidea sortzeko eskubidea ez litzateke informaziorako- eskubidearen baitan egongo. Baizik eta enpresa-askatasunaren bezalako printzipio baten baitan.

Horrenbestez, muga teknikorik ez dagoenean ez da baimenik behar. Aurretiazko komunikazioa behar da. Administrazioari komunikatzea hedabide bat sortu nahi duzula. Administrazioari komunikatzea hedabide bat sortu nahi duzula esatea. Beraz, ez lirateke mugarik egongo idatzizko hedabide bat sortzeko, baina bai ikus-entzunezko hedabide bat.

20. artikulua jasotzen duen beste lege bat baina auzitegiek onartu ez dutena hau da: **hedabideak sortzeko eskubidea**. Eskubidea dagoela esan zuten, baina esan zuten eskubidea edonori eman ahal bazitzaion, adibidez TDTan ezin dira nahi diren kateak sortu. Baliabide teknikoak urriak dira zentzu honetan eta beraz mundu guztiari ezin zaio onartu eskubidea. Horregatik hedabideen sorkuntzak kontrol bat behar du. Are gehiago, interes orokorreko zerbitzu bezala daude deskribatuta hedabideak.

3. GAIA. INFORMAZIO-ASKATASUNAREN ELEMENTU ERATZAILEAK

Barne mugak

3.1. EGIASKOTASUN PRINTZIOA

Egiaskotasun printzipioari dagokionez, barne muga dela zehaztu behar da, eta informaziorako-eskubidea egikaritzen denean hartu behar da kontuan. Adierazpen-askatasuna egikaritzen dugunean berriz, ez da aplikagarria. iritziak iritzi diren heinean ezin direlako frogatu. Horrez gain, umore- edo ironia-mezuak babestuak izan daitezzen, ez zaie egiaskotasunaren friga eskatzen. Ulertzen baita adierazpen-askatasunaren egikaritzea mota bat direla.

Nolanahi ere, **informazioen egiaskotasuna** ez da betekizun nahikoa informazioa babesteko. Beste batzuk ere bete behar dira, hala nola, informazioaren nabarmentasun publikoa (interes orokorra) eta irainen gabezia.

Bestalde, argitaratutako informazio batek intimitatea urratzen badu, egiaskotasuna dela suposatzen da, intimitatea urratzeko egiaskotasun zerbait izan behar duelako. Gezurra bada, ez da intimitatea urratzen baina ohorea agian bai. **Orduan, informaziorako eskubideak intimitatearekin talka egiten duenean egiaskotasun printzipioa aztertzeak zentzua dauka?** No sé quién o porretan joan da Punta Canara eta han harremana izan du pertsona famatu batekin. Intimitatea urratu daiteke gezurrezko informazioarekin? EZ.

Beraz egiaskotasun printzipioak zentzua dauka informazioaren eskubidea egikaritzerakoan.

Orduan zer exigitzen du egiaskotasunaren printzipioak?

Bi errealitate kontrajarri daude:

- Egi objektiboa: egia izatea zerbait, errealitatean gertatu dena.
- Egi subjektiboa: ez duena zertan benetan gertatutako zerbait izan behar.

Informazioaren profesionali exigitzen (galdatzen) zaie egia objektiboa argitaratzea?

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ez du eskatzen informazio baten egiaskotasuna erabatekoa izatea ikuspuntu objektibo batetik, hau da, ez da zertan errealitatera erabat egokitu behar.

Auzitegiak egiaskotasuna ikuspuntu subjektibotik baloratzen du. Hau da, kazetaria ardura nahikoaz jardun izana exijitzen da, kontrastatzeko esfortzu nahikoa egin izana alegia. Eta ez egia objektiboa. Honek bi ondorio dakartza:

- NOIZBEHINKAKO HUTSEGITEEN ONARGARRITASUNA: Bai, informazio batean akatsak egon daitezke. Bakarrik akats ez badira funtsezkoak, hau da, oso garrantzitsuak ez diren akatsak. Informazioaren zentzuarengan eraginik ez daukaten akatsak alegia.
- ARDURA PROFESIONALA:
 - Profesionalari (kazetariari) dagokio epaiketa batean frogatzea ardura profesionala egon dela. Profesionalak (akusatuak) frogatu behar du errugabea dela, ardura nahikoaz jardun duela.
 - Ondo jardun den ala ez jakiteko informazioa osotasunean kontuan hartu behar da, ez testuingurutik ateratako hitzetan oinarrituz.
 - Akatsa egon daiteke informazioa gezurra izateagatik edo inkompletoa izateagatik.

- Egiazkotasuna aztertzerako orduan kontuan hartuko da profesionalaren aurretiazko jarrera. Argitaratu aurretik zer egin duen informazioa kontrastatzeko, eta ez argitaratu eta gero zer egin duen en plan barkamena eskatuz, edo rectificatuz.
- Egiazkotasun printzipioa aztertzerako orduan berdin du informazioaren “biktimaren” jarrerak, biktimak edo afektatua. Hau da berak esatea gezurra dela edo dena delakoa. Egiazkotasun printzipioa aztertzerakoan, egiazkotasuna kontratatatu bada, berdin du informazioaren biktimaren-afektatuaren jarrerak, ez da relevantea egiazkotasunarekiko.
- Informazioak zurrumurruetan oinarritu daitezke? Ezin dira zurrumurruetan oinarritutako informazioak eman. Zurrumuruak, zurrumuru bezala ematea ordea, bai.
- Iturri guztiek ez dute indar berdina, batzuk beste batzuk baino gehiago dute. Iturri ofizialak dira indartsuenak direnak. Iturriak existitzen direla frogatzearekin nahikoa da.

Orduan orokorrean egiazkotasun printzipioak egia subjektiboa eskatzen du beraz akatsak onartzen dira.

3.1.1. Etorkizuneko perspektiba

Zenbaiten ustez, informatzailea gehiegi babesten da kaltetuaren aurrean, berdin duelako informazioa egia objektiboa ez izatea. Gauza bat da arduraz jardun duen informatzailea erentzule ez izatea (hau onargarria), baina beste bat, egia eta faltsutasuna aldarrikatuko duen prozedura judizialik ez egotea.

Planteatzen den beste zalantza bat da, ea logikoa den doktrina hori aplikatzea e bakarrik profesionali baizik eta informazio-askatasunaz baliatzen den edozein herritarri ere.

Nolanahi ere, kazetariak babesteko era epaietan geroz eta zorrotzagoa da eta kazetarien arduraren profesionalaren geroz eta frogaz zehatzagoak eskatzen dira.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak erabaki du herritar batek interes publikoari eragiten dion eztabaida publiko batean jaurtitako adierazpenak, baiestatutakoa egiaztatze ardurari buruzko arauak informatzaileei eskatzen zaizkionak izan behar direla.

3. 2. NABARMENTZE PUBLIKOA

Informazioak nabarmentasun publikoa izango du interes orokorraren alde egiten duenean, hau da herritar guztiei eragiten dien gertaerei buruzkoa. Interes publiko hori ez dute audientziek zehazten, interes publiko ez da publikoaren interesa. Beraz, irizpide bat jartzekotan: gizartearentzat ekarpen bat suposatzen du. Beraz, ekarpenik ez badago ez da interes publikokoa. Bi ondorio:

- Ez da gauza bera interes publiko eta publikoaren interesa. Audientziek ez daukate zerikusirik interes publikoarekin. Interes publikoak interes objektiboa du.
- Pertsona publiko izateak baldintzatu dezake interes publiko hori.

Azkenik, nabarmentasun publiko ez da nahasi behar informazio jakin baten izaera albistetsuarekin ezta kuriositate hutsarekin ere ez.

3.3. IRITZI PUBLIKOA ERATZEKO ERAKUNDE-BERMEA

Informazio-askatasuna bi ikuspuntutik azter daiteke: tituludun diren gizabanakoen ikuspuntutik, eta gizartearen ikuspuntutik. 20. artikulua babesten du iritzi publiko librea eratzeko prozesua.

Beraz, **komunikazio publiko librea** ezinbestekoa da, horrek egiten dio erreferentzia gizartean egon behar den informazioen jario libreari. Herritar bakoitzak bere iritzi propioa sortzeko ikuspuntu ezberdineko informazioa jasotzeko eskubidea.

Hedabideek sortzen dute gaur egun iritzia. Badaude beste medio batzuk ere iritzi publiko sortu dezaketena. Inposatzen ari da irizpide berri bat ez da garrantzitsuena nork egikaritzen duen informaziorako eskubidea adibidez informaziorako profesionalak, ez da profesionala izan behar, zein medio erabiltzen den informazio garrantzitsu bat emateko eta zein den medio horren helmena da garrantzitsuagoa.

4. GAIA: INFORMAZIO- ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNAREN MUGAK (Bereziki, ideologia adierazteko askatasunarenak)

4.1. ADIERAZPEN- ETA INFORMAZIO-ASKATASUNEN MUGAK

EK 20.4. artikuluan agertzen dira adierazpen- eta informazio-askatasunen mugak:

1. Konstituzioaren I. Tituluan aitortutako eskubideen errespetua. LEGE GUZTIAK
2. Aurrekoak garatuko duten legeek diotena, eskubide horiek arautzen dituzten legeak
3. Ohorerako eta intimitaterako eskubidea
4. Gazteen eta haurren babes-eskubidea.

Ez da zerrenda itxia: Konstituzioaren beste balore eta ondasunek 20.art muga dezake.

Informazioaren gizartean bizi garela esaten da. Pertsonak gara, herritarrak eta gizartean integratuta gaude guztiz. Herritarrak izateaz gain informazioaren gizartean kontsumitzaileak gara. Zer kontsumitzen dugu? Ideologia, produktuak, zerbitzuak... informazioaren gizartean bagaude, informazio hori kontrolatzea garrantzitsua izango da. Herritarrak eta kontsumitzaileak garelako. *Informazioa da gaur egun dagoen informaziorik baliagarriena, diru gehien mugitzen duena.*

Mugak izan behar dituzten betekizunak. Muga, kasu guztietarako; informazio eskubidea mugatu behar dugunean kasu guztietan kontuan hartu beharrekoak:

- Abiapuntua: informazio eskubidearen nagusitasun posizioa (posicion preponderante) izango da kanpo mugetako lehen ideia garrantzitsua.
- EK 20.4. artikulua muga ugari
- Konstituziotik kanpo: GEEH (Giza Eskubideen Europar Hitzarmena)-aren 10.2. artikulua Konstituzioaren 20.4 artikuluan jasotzen dituen baino muga gehiago aipatzen ditu. Aurreko mugez gain, **morala**, segurtasun nazionala, segurtasun publikoa... jasotzen dira. Hemen konstituzioan baino babes gehiago agertzen dira. Testu honetan aipatzen diren mugak barne eremuan aplika al daitezke?
 - o Babes minimo bat da hitzarmen hau (GEEH), Europa osatzen duten estatu guztiak errespetatu behar dutena. Baina babes minimo hau baino gehiago babestu daiteke, Espainiako Konstituzioak morala adibidez ez duelako barne hartzen, muga gutxiago jarri dizkio konstituzioak. Beraz, posible da printzipio hauek aplikatzea barne eremuan, nahiz eta EKn ez agertu? Printzipioz **ez**, ulertzen delako EKK gehiago babesten duela informazioaren eskubidea.
- Auzitegi garrantzitsuenek (KA, AG, GEEA, EBJA) abiapuntu bezala interpretatu dute oinarrizko eskubideen mugak interpretatu behar direla zentzu hertsian, ez zentzu zabalean. Zein irizpide hartu behar da oinarrizko eskubide hauen mugak baliozkoak diren ala ez jakiteko? Egiten duguna legekoa den edo ez jakiteko hiru galdekizun bete behar ditu. 3 irizpide:
 - o Muga hori **lege organiko** eta **legeetan** agertzea.
 - o Muga horrek babestu beharko du **konstituzioan** jasotzen den interes edo ondasun juridiko bat. Informazioaren eskubidea mugatu ahal izateko konstituzioan jasotzen den zerbait argudiatu beharko duzu.
 - o Garrantzitsuena: **Proporzionala** izan behar da muga hori. Proporzionaltasun printzipioa eduki beharko du. Hiru azpibetekizun:
 - **Egokitasuna**: Adecuación, ea muga egokia den helburua betetzeko. Aber informazio egokia den helburua lortzeko.
 - **Beharrezkotasuna**: Aber beharrezkoa den informazioa helburua lortzeko.
 - **Proporzionaltasuna** zentzu ertsian (sentido estricto) baloratzea ikuspuntu teoriko batetik talkan dauden interesak.

4.2. IDEOLOGIA ADIERAZTEKO ASKATASUNAREN MUGAK

Adierazpen askatasuna eta ideologia askatasuna sartzen dira jokoan. **Orduan, onartuta baldin badago ideologia adierazteko askatasuna, zein da ideologia adierazteko askatasuna adierazteko muga?** Irizpidea zein den jakiteko 16. artikulua hartu behar da kontuan. Honek dio ideologia askatasuna mugatzeko kontzeptu bat hartu behar dela kontuan: ordena publikoa.

Beraz, ideologia adierazteko askatasuna mugatu ahal izango da eskubide horren egikaritzak arriskuan jartzen baldin badu ordena publikoa. Pertsona baten ohorea urratzen dugunean, muga 20.4. artikulua da. Baina talde edo kolektibo baten ohorea urratzen denean, eta kolektibo hori sexuagatik, arrazagatik, ideologiagatik etab. urratzen bada, 16. artikulua da mugatzailea. Hau da, ordena publikoarena, zerbait gehiago behar da. Talde horien ohorea urratzen dela kontsideratzeko, kontuan hartuko dugun irizpidea "Ordena publikoaren"-a da. **HATE SPEECHE (discurso del odio):** Debekatu ahal izango da aurrekoa kontuan hartuta.

GEEA-n aplikatzen den irizpidea ez da hainbeste ordena publikoarena, baizik eta irainarena. **Doako iraina.** Sentimendu erlijiosoen babesa: penalki babesten dira. Zein puntutaraino adierazpen askatasunaren muga den erlijio askatasuna. Zein puntutaraino erlijio askatasunak mugatzen duen adierazpen askatasuna. Erlijioa iraindu daiteke, kritikatu daiteke betiere adierazpen horrek ez baldin badu doako iraina suposatzen. Honek darama adierazpen askatasuna egikaritzen duen pertsonaren borondatea aztertzea. Borondatea frogatzen bada iraintzea dela.

Nola jakingo dugu kasu zehatz batean ordena publikoa arriskuan dagoen edo ez?

1. Alde batetik **mezuaren edukia.**
2. Bestetik, hau garrantzitsuena izan beharko luke: **kontextua.**

Jarrera edo jarduera biolentoak egitera bultzatzea ez da onartuta egongo, ordena publikoaren irizpidea jarraituz. Ordena publikoaren irizpidea aplikatu izan da yihadisten kasuan "enaltecimiento" edo "apologia del terrorismo" bezala.

Irizpideak orain ari dira sortzen. Bi irizpide kontrajarri daitezke: IRAINARENA eta ORDENA PUBLIKOARENA. Bi korrante daude. Korrante 'progre' batek aplikatzen duen teoria da zuzenbide penala sortu zenengan, kode penala ahalik eta gutxien aplikatu behar dela. Azken neurri bat izango litzateke kode penala. Hori lor daiteke Ordena Publikoaren irizpidea aplikatuz, kasu hauek arriskuan jartzen badute OP-a zigortua izan daiteke, biolentzia bultzatzen dutenean. Beste irizpidea, DOAKO IRAINARENA da, eta hau askoz ere arinagoa da, iraina oso irizpide subjektiboa delako. Segun eta zein auzitegi tokatzen zaizun, batek gauza bat esango du eta besteak beste bat. Irainaren kontua aplikatzeak ekartzen duena da kode penala errazago aplikatzea.

Autonomia politikoei eta horien sinboloiei idoi egitea: himnolari txistu egitea edo bandera erretzea. Kode Penalean jartzen du delitua dela AEak edo beren sinboloak ofenditzea. Kode penalak espainian esaten duena da ordena publikoa arriskuan jartzen badu delitua dela. Baina azken epaietan bi kasuetan (himnoa eta bandera) ez da ordena publikoaren irizpidea aplikatu, doako irainarena baizik. Ulertzen duelako jarrera horrek iraina dakarrela. Auzitegiek ez dute aztertu hauen benetako borondatea, baizik eta muturrera eraman dute: iraintzeko borondatea dagoela esan dute sinbolo hauek erretzeak. Auzitegiak ez zuen kontuan hartu ere egin manifestazio eta protesta egun batean gertatu zela, hori kontuan hartuko balu kritika bat egiteko egiten dela ikusiko litzateke. Injurias al rey delituen kasuan gauza bera gertatu da: portada horregatik erakunde bat iraintzen ari zaren / ez neurtu behar da.

BAINA: Barne eremuan aplikatu izan duten irizpidea izan da DOAKO IRAINAREN IRIZPIDEAN. Bai espainiako AE eta beren sinboloen aurrean eta bai monarkiaren ohorea babesteko. Kasu gaur egun polemikoena: apologiarena. Orain arte ikusi ditugun irizpideak gutxitan kontuan hartu izan dira.

Apologia al terrorismo delitua gehiago aplikatu izan da. 80.hamarkadatik aurrera Espainiako Ak-k irizpidea aldatu du. Oso irizpide hertsia erabiltzen zuen apologia zigortzearen inguruan, zorrotza. Adib; ez zituen zigortu hiru jarduera zehatz:

- Ez zen apologia talde terrorista baten komunikatuak argitaratzea
- Ez da apologia talde terrorista bat edo terrorismoa ez kondenatzea
- Konstituzio Auzitegiak konstituzio kontrakotzat jo zuen lege organiko antiterrorista, zeinetan apologia bera zigortu nahi zen esanez: terrorismoarekiko edo terroristekiko nolabaiteko hurbiltasuna/solidaritatea agertzeak ezin du suposatu kode penalaren aplikazioa.

Argi zeukan AK-k irizpide bat aplikatuko zuelaà ORDENA PUBLIKOARENA.

Irizpide hau aldatzen hasten da 2000.urteetik aurrera, eta batez ere 2015.urteetik aurrera: azken erreformaren ostean, irizpidea GUZTIZ aldatzen da. Momentu horretan ordena publikoaren irizpidea alde batera uzten hasten da. Gaur egun zigortu egiten dira batez ere hiru jarduera:

- Terrorismoa bultzatzea: incitacion. Kasu honetan ordena publikoaren irizpidea aplikatzen da.
- Terrorismoa goraiatzea edo justifikatzea: enaltecimiento/justificacion del terrorismo. Kasu honetan kontuan hartzen den irizpidea zein den ez dakigu, oso epai kontrajarriak daudelako. Kasu batzuetan ez dira zigorrak inposatu, eta beste batzuetan berriz, zigortu egin da.
- Biktimen edo beraien familien umilazioa.

Badago beste delitu bat apunteen bukaeran aipatzen dela besterik gabe: autoadoctrinamiento. Frogatu egin behar da pertsona horrek benetan nahi duena dela terrorista bihurtzea. Ordena publikoaren irizpidea aplikatu dute beraz, benetan ordena publikoa arriskuan jarri behar dela frogatu behar da.

Bi irizpide horiek existitzen dira kontuan hartzea da AZTERKETARAKO GARRANTZITSUENA. Jokoan dagoena asko dagoelako: ideologia askatasuna, pa lo bueno y pa lo malo.

5. GAIA. INFORMAZIO- ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNETAN BOTERE PUBLIKOEN ESKU SARTZEAREN AURREKO BERMEAK

5.1. AURRE-ZENTSURAREN DEBEKUA

Konstituzioaren 20.2 artikuluan esaten da informazio eta adierazpen askatasuna ezin direla murriztu aurre-zentsuraren bidez. Baita ere, 1966ko Prentsaren eta Inprentaren Legeak debekatu zuen administrazioaren aurre-zentsura.

Izan ere, zentsura da botere publikoak hedatuko den informazioen edukia, horiek hedatu aurretik aztertzen edo hedatzea mugatzen duenean. Beraz, zentsura aurretiatzkoa izan behar da nahitaez, “gerora” egiten denean bestelako izena jasotzen baitu eta jada ez litzateke zentsura izango. Beraz, zentsura botere publikoen “aurretiatzko” esku sartzea da.

Diktaduran (Frankismoan) zentsura posiblea zen, eta gainera zentsura administrazioak egikaritzen zuen eta ez auzitegiek. Horretarako zentsoreak zeuden. Geroago, auzitegiek egikaritu zezaketen zentsura, baina gaur egun **Konstituzioaren 20.2 artikulua debekatzen** ditu aurre-zentsura mota guztiak; bai administrazioaren partetik, bai eta zeregin hori egotz dakioken beste edozein organoren partetik ere.

Asko eztabaidatu da informazioaren-askatasunaren egikaritzaren inguruan. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren epai batek baieztatu zuen zentsuraren debekua zorrotasuna administrazioa zuzendurik doala, baina epaileen kasuan ñabartu egin beharra dagoela.

Zentsura suposatzen dezakeen edozer debekatzea. **“Chilling efektuak”** ekarri nahi duena da ahalik eta gehien zentsuraren debekuaekin, adierazpen-askatasuna eta informaziorako eskubidea babestea.

Eduki pornografikoko argitalpenei dagokienez: Konstituzio Auzitegiari ez zaio aurre-zentsura iruditu zerbitzu publiko baterako sabidea ixtea. Ondorioz, argitaletzek garraio eta banaketarako baliabide pribatuetara jo du eta aldizkariaren hedapenarekin garrantzi du. Baina azkenean, adierazitako moduko adierazpen-askatasunaren murrizketa aurre-zentsura izan ez den arren kalte ordainak oraindu dizkiote argitaletxeari.

Juridikoki aurre-zentsura kontsideratzen ez dena:

- 1) **AUTO-ZENTSURA:** Kazetariak, hedabideak edo hedabide multzo batek informazio zehatza ez argitaratzea erabakitzen duenean. Adibidez terrorismoaren edo indarkeriaren inguruko gaitan, edo eta adingabekoen irudiak. Auto-zentsuraz baliatzeak ez dio inolako ondorio juridiko negatiborik ekarriko hausleari (profesionala edo hedabideari).
- 2) **BETO-ESKUBIDEA:** Hedabide baten zuzendariak edo argitalpen beraren argitaratzaileak zenbait informazioaren argitalpena atzera botatzen duenean ematen da beto-eskubidea. Gerta daiteke, liburu baten argitalpena administrazioari dagokionean eta obraren zenbait eduki ezabatu nahi baditu eta ezabatzen baditu administrazioak egilearen baimenik gabe, hori bai izango litzatekeela aurre-zentsura.
- 3) **“BOIKOTA** (boikotaren terminoa nik asmatu dut, da pixka bat ulertzeko, baina ez da “BOIKOTA” deitzen, sinmas, ez du izenik): Herritarrek edo jende multzo batek hedabide batekiko egin dezaketen presioa hedabide bat ez kontsumitzera animatzerakoan.
- 4) **LEGE-GORDAILUA:** Lege gordailuak erreferentzia egiten dio “depositoari”: liburu bat edo aldizkari bat edo pelikula bat egiten duzunean berau depositora eraman behar duzu, dagokion administrazioan (gure kasuan Eusko Jarularitzan), bertan erregistratu eta beraiek zenbaki bat emateko. Helburua da ondare

kulturala pilatzea eta artxibatzea: obra guztiak eskuragarri izateko administrazioan. Edozein liburu hartu ezkerro, edo pelikula, ikusiko duzue zenbaki bat daukala. Zenbaki hori obra hori erregistratu, depositatu, denean emango digute. Nahi baduzue era errazean ikusi, begiratu 23/2011 Legea. Hori irakurtzen baduzue oso erraz ikusiko duzue.

5.2. ARGITALPENEN BAHIKETA ETA AURRETIAZKO KAUTELAZKO NEURRI JUDIZIALAK

5.2.1. Informazioen bahiketa judiziala

Konstituzioaren 20.5 artikuluaren arabera ezin da bahiketa bat egin ebazpen judizialik ez badago. Hau da, bahiketa judizialak egitea soilik da posible. Beraz, bahiketa botere judizialaren esku dago, eta, modu zuzenean azaltzen ez den arren, administrazioak debekatuta dauka bahiketak egitea. **Informazioaren bahiketa neurri murriztailea** da.

Bahiketa euskarri batean (egunkari, liburu, pelikula...) dagoen mezu baten kontra egiten da. Hau da, bahitzen dena mezu bat izaten da eta mezu hori jasotzen duen euskarria. Bahiketa ez da hedabidearen kontra zuzentzen, baizik eta mezu zehatz bat jasotzen duen euskarri zehatz baten kontra: aldizkari baten zenbaki zehatz bat bahitzen da, edo liburu zehatz bat, edo pelikula bat...

Bahiketa bat auto bitartez erabakitzen da.

- **Sententzia:** auzitegiaren azken erabakia da.
- **Autoa:** prozesuan zehar hartzen diren tarteko erabakiak.

Hala ere, azuitegiak hartzen duen erabakia da, beti arrazoitu beharrekoa.

Bahiketak ez baditu hurrengo puntuak errespetatzen, delitu izan daiteke:

1. Informazio jakinen emisioarekiko **neurri kautelarra**. Honen bitartez babestu nahi dena da berriz ez egitea inputatutako delitua. Neurri kautelarren bitartez ez zaio bukaera ematen bahiketa prozesuari. Azkenengo erabakia baino lehenago hartzen den neurri bat da, beraz, gerta liteke aurrerago bertan behera geratzea.

Emandako autoa arrazoituta egon behar da, beraz, bahiketa egiteko arrazoiak azaldu behar dira. Gainera, bi alderdien argudioei erreparatu behar zaie (informazioa bahitu nahi duenaren argudioak, eta informazioaren sortzailearen argudioak). Horretaz gain, bahiketa-aginduaren aurka egin daiteke.

2. Ezin da epailearengana jo bahiketa hutsa eskatzera, horrekin batera beste zerbait eskatzen ez baldin bada (kalte-ordain jasotzeko demanda zibila...). Hau da, neurri kautelarrak hartzeko lege bat hartuko da kontuan, bai bide zibilean bai penalean.

Bi gauza ezberdin dira:

- Lehenengoa: bahiketa ez da prozesu judizialaren helburu nagusia. Zuk demanda edo kereila tarteratzean eskatuko duzun gauza garrantzitsuena ez da bahiketa izango, baizik eta kaltea egin dizuna zigortzea edo kalte-ordaina ordaintzea. Bahiketa ez da epaileari eskatzen zaion gauza garrantzitsuena, baizik eta neurri gehigarri (accesorio) bat. Horregatik esaten da ez dela epailearengana jotzen bahiketa eskatzera. Prozesu judizialen helburua ez da bahiketa, baizik eta zigorra jarri edo kalte-ordaina dagoen argitzea.
- Bigarrena: bahiketa jarri ahal izateko bahiketa jartzea Lege batek ahalbidetu behar du. Hau da, Lege batean agertu behar da bahiketa egin daitekeela (hori gertatzen da Kode Penalean edota 1/1982 LOan)

3. Bahiketa lege batek (lege organiko maila izan behar du) epailea berariaz horretarako gaitzen duenean soilik ahal izango da onartu. Esan dizuedana: bahiketa erabakitzeko epaile edo auzitegi batek Lege batean oinarritu behar du. Adibidez, KP edo 1/1982 LO biak dira Lege organikoak.
4. Adierazpen- eta informazio-askatasunen egikaritzarako konstituzio mailako mugak diren ondasunak eta balore juridikoak edo oinarrizko eskubideak (ohorea, intimitatea...) babesteko neurriak dira. Bahiketarako ondasun edo eskubide horiei eragiten dizkietenean, bahiketaren kalteak gutxitu daitezke, edo behintzat kalteak ez gehitzeko.

Bahiketa bat erabakitzeko derrigorrezkoa da epaile edo auzitegiak zerbait garrantzitsua babestu nahi izatea. Hau da, bahiketa erabakiko da baldin eta interes garrantzitsu bat babesteko bada: ohorea, intimitatea... adibidez.

Laburbilduz, **bahiketa bat** honako honetan datza: **zirkulaziotik informazio zehatz bat edo informazio horren euskarria erretiratzea. Hori, enpresaren edo profesionalaren informazio-zereginaren egikaritzari kalterik egin gabe.**

Gainera, proportzionaltasun printzipioak eskatzen duenez, liburu edo aldizkari baten bahiketa egiterakoan, soilik informazio-murrizketaren objektu zehatza den informazioa kentzea izango litzateke.

Bestalde, **ikus-entzunezko hedabideen** kasuan, idatzizko hedabideei jartzen zaizkien neurri berdinak izan ahal dituzten arren, isun judizialak, eta zigor erantzukizuna jartzea ere posible da agindua ez denean betetzen.

5.2.2. Aurretiazko kautelazko neurri judizialak

Bai, koadrila, ikusi genituen: gogoratu hiru figura ezberdinu genituela. Bat, zentsura (debekatua dagoena). Bi, bahiketa (posible dena). Hiru, bestelako neurri kautelarrak, zentsura ez direnak eta bahiketaren ezaugarri berberak izan behar dituztenak baliozkoak izateko (epaile batek onartua, Lege batean aurreikusiak, ondasun garrantzitsu bat babestera zuzenduak...). Hirugarren hauetako adibide bat da: programa bat emititu daiteke baldin eta baldintza bat betetzen bada (jar dezagun, pertsona zehatz baten irudia ez agertzea). Baldintza hori jartzea (irudia ez agertzea) ez da zentsura baldin eta neurri kautelar bezala epaile batek erabakitzen badu. Ez da bahiketa bat (programa emititu daiteke eta), baina ez da zentsura bat (ez dagoelako debekatuta). Neurri kautelar bat da, bahiketan antzekoa, baina ezberdina.

- 1) ???
- 2) ???
- 3) ???

5.3. INFORMAZIO-ASKATASUNEN ETENDURA OROKORRA ETA BANAKAKO ETENDURA

5.3.1. Etendura orokorra

Konstituzioak normaltasun egoerarako aurreikusten dira, baina krisi garaietarako aurreikuspenak ere jasotzen dituzte. Egoera berezi horiek bi funtsezko ezaugarriekin arautzen dira:

- a) Ezinezkoa da Konstituzio osoa etetea, oinarrizko zenbait eskubide soilik baizik.
- b) Aparteko hiru egoera daude:
 - 1) Alarma-egoera
 - 2) Salbuespen-egoera
 - 3) Setio-egoera

Egoera horien arauketa arautzen dituen **ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoan** dago. Horrek, egoera berezi guztiei eragiten dizkien printzipio orokorrak jasotzen ditu: proportzionaltasuna, denboratasuna, publikitatea eta berehalako indarrean egotea.

Ezohiko egoerak:

- 1) **Alarma-egoera:** Dekretu bitartez gobernuak onartu dezaken egoera bat non oinarrizko eskubideak nolabait murrizten diren; oinarrizko zerbitzuen paroa, epidemiak, zirkulazio-askatasuna etab. Alarma egoera, nahiz eta egoera berezi bat izan, eskubideak murrizten diren arren, ez dira eteten. Informaziorako eskubideak eta adierazpen askatasunak beraz berdin berdin jarraitzen dute, baina eragin dezake informazio-enpresen gain (zenbait lekutara kazetarien sarbidea mugatzea -pertsonez izateagatik, ez kazetari izateagatik...).
- 2) **Salbuespen-egoera:** Estatuko gobernuak aldarrika dezake dekretu bidez, beti ere Kongresuaren aurretiazko baimenarekin. Oinarrizko eskubideak eten daitezke. Kasu honetan administrazioak bahiketak egikaritu ditzake, nahikoa da administrazioaren erabakiarekin.
- 3) **Setio-egoera:** Kongresuak aldarrikatu behar du eta kasu honetan ere eskubideak eteten dira. Kasu honetan administrazioak bahiketak agikaritu ditzazke, nahikoa da administrazioaren erabakiarekin.

5.3.2 Banakako etendura

Konstituzioaren 55. artikuluan ere albuespen egoerak jasotzen dira. Bertan, terrorismoarekin harremana duten subjektuen oinarrizko eskubide jakin batzuk mugatzen dira, baina ez dute komunikazio-askatasunarekin zerikusirik (adierazpen-askatasuna eta informaziorako-eskubidea ez dira mugatzen). Gertatzen dena da lege antiterroristak hedabideei mugak jartzen saiatu direla. Horrenbestez, terrorismoarekin zerikusia izan zuten medioak neurri kautelarren bitartez itxi zituzten.

5.4. HEDABIDEEN ITXIERA JUDIZIALA

Gizarte-hedabide bat ixtea (albuespen- eta setio-egoeretan izan ezik) Konstituzioaren kontrakoa da bi arrazoiengatik:

1. Delituarekin zerikusirik ez duten subjektuei eragiten zaielako: irakurleak.
2. Badagoelako proportziozkoagoa den beste neurri bat: argitalpenaren bahiketa.

Beraz, epai baten bitartez ezinezkoa da hedabide bat itxtea.

Zentsura ez da posible.

Bahiketa judiziala posible da baina soilik bahiketa judiziala. Albuespen batekin, noiz da posible bahiketa administratiboa? Alarma egoeran ez da posible. Albuespen edota setio egoeran, bahiketa neurri kautelarra da eta judizialki beste neurri kautelarrak hartu daitezke.

6. GAIA. (8) KONTZIENTZIA-KLAUSULA

8.1. KONTZEPTUA ETA LEGEZKO ARAUKETA

8.1.1. Konstituzio- eta lege-markoa

Konstituzioaren 20. artikulua adierazten du legeak arautuko duela kontzientzia-klausula eta sekretu profesionala. Kontzientzia klausularen arauketa 1997an onartutako Lege Organiko baten bidez egiten da. Informazioaren profesionalen alde egiten du, eta ez dago aurkako norabidean erabiltzeko pentsaturik. Hau da, profesionalak egikaritu dezake enpresaren aurrean, baina enpresak profesionalaren aurrean ez. Profesionalen askatasuna bermatu nahi da.

8.1.2. Babestutako ondasun juridikoa

Klausulak babesten duena kazetariaren lanbide-independentsia da. Zuzenean babesten dena es da informazio-askatasuna, **lanbidearen independentzia** baizik.

Klausula honen helburua da kazetaritza-enpresaren partetik kazetariak jasan dezakeen gehiegikeriatik babestea. Hau da, jatorriko hedabidearen ideologia-joera aldaketan aurrean, kazetariak propio duen ideologia aldatu behar izatea. Azken hori BRACHARD Txostenak batzen duen ideia da.

Nolanahi ere, klausula **ez** da ulertu behar **kazetariaren eskubide partikular gisa** soilik, baita informazio-askatasun kolektiboa ere asetzen da iritzi publiko askea bermatzen duelako. Klausulak izaera bukoitza duela esaten da:

- a) Ikuspuntu indibidual (subjektibotik, profesionalaren ikuspuntutik) batetik, langileen independentzia komunikazio enpresa barruan. Nahi duguna pentsatu ahal izateko eta horren arabera jardun ahal izateko eskubidea. Hedabide batean sartzean gure kontzientziarekin eta ideologiarekin joan behar gara lanera.
- b) Ikuspuntu kolektibo batetik: pluraltasuna babestu nahi da. Profesionalek askatasuna badute, horrekin medioen pluraltasuna babestuko da.

8.2. ESKUBIDEAREN SUBJEKTU TITULUDUN AKTIBOA ETA SUBJEKTU PASIBOA

8.2.1. Subjektu aktiboa

Zer nolako erlazio juridikoa da beharrezkoa eskubide hori benetan egikaritu ahal izateko?

- a) Erlazioaren lan izaera: Nahitaezko lan-kontratua izatea eskatzen du klausularen eskubideak egikaritu ahal izateko. Kontzientzia-klausulak ez du aurreikusten lan-kategoriaren araberrako erregimen juridiko berezia. Hau da, edozein motatako lan harremanak.

Batzuk trabajo por cuenta ajena. Hau da beste batentzat. Beste batzuetan adlitz Freelance moduan lan egin dezakezu. Hau da zuk zuretzat lan egiten duzu eta autonomoa zara. Kasu hauetan autonomoek kontzientzia klausula ezin dezakete egikaritu printzipioz. Autonomo askoren atzean lan harreman bat ezkututzen da, hau da, berdin berdinean lan egiten dute baina autonomo bezala kontratatzen dira merkeagoa delako.

- b) Lan-zuzenbidetik knpoko kontratu-erlazionalak: Horregatik, aurrekoagatik, gaur egun auzitegiak harremanaren izaerari begiratzen diote. Honako hauek ematen badira, lan-erlazioa dagoela

justifikatuko da eta beraz hedabidean bertan lan egiten duen beste edozein langileren eskubideak izango ditu “kolaboratzaile” horrek.

- o **Menpekotasuna.** Pertsona horrek ia enpresarentzat lan egiten duen
- o **Bestekotasuna.** Autonomoak egiten duen produktua berea edo enpresarena den.
- o **Ordainsaria.** Nola kobratzen den ordainsaria, oso era puntualean edo eta maiztasunez.

c) “Informazio-arloko profesionala” izan beharra: Informazioa lantzen duen edozein langile. Ez soilik titulua dutenak.

8.2.2. Subjektu pasibia

a) *Klausula hedabide publikoetan*

Zergatik aurrezagutzen zaigu gure konstituzioan klausula hau? Hedabideak “enpresas de tendencia” dira. Hedabideek ideologia bat daukate. Orduan zentzua dauka kontzientzia klausula egikaritzea hedabideetan? Ba bai, ideologiak garrantzia daukalako.

Hedabide publikoen alde edo bien alde? Argi dago hedabide pribatuetan egikaritu daitekeela. Hedabide publikoetan kontzientzia klausulak zentzurik dauka? Ba bai.

8.3. KLAUSULAREN EGIKARITZAREN BALDINTZAK

8.3.1. Informazio-joeran edo ideologia-ildoan funtsezko aldaketa

Komunikazio hedabidearen informazio-joeran edo ideologia-ildoan funtsezko aldaketa gertatzean. Lau hausnarketa:

- 1) Hedabidearen jabetzaren konposaketaren edo zuzendaritzako barne egitarren aldaketa hutsak ez darama berarekin klausulaz baliatzeko aukera.
- 2) Ezin da klausula eskatu irizpideen aniztasuna lan-erlazioa hasi zenekoa bada edo informatzailearen beraren bilakaera ideologikoaren ondorioa denean.
- 3) Aldaketa “informazio-joerari” buruzkoa izan behar da, hau da, argitalpenean edo informazioa tratatzeko eran genero-aldaketa, edo “ideologia-ildoari” buruzkoa, hots, argitaratze printzipio edo irizpideen aldaketa, hori bultzatzen duten arrazoiak aintzat hartu gabe.
- 4) Aldaketa “funtsezkoa” izan behar da eta baita objektiboa ere, hau da, hedabidearen irakurleek edo entzuleek antzemateko modukoa, eta ez soilik profesionalak.

8.3.2. Informatzailearen lanbide-joera modu nabarian hausten duen talde bereko beste hedabide batera lekualdatzea

Enpresak profesionala lekualdatzen duenean talde bereko beste komunikabide batera, eta komunikabide berriaren ideologiak eragiten badu profesionalaren lanbide-joera modu nabarian haustea. Kasu honetan ere klausula egikaritu daiteke.

8.3.3. Kontzientzia-klausularen legean jasotzen ez diren beste inguruabar teorikoak

NOREN AURREAN EGIKARITZEN DA?

- **Komunikabide enpresen aurrean.**

- **Hedabide pribatu eta publikoetan** ere egikaritu daiteke kontzientzia klausula. (bai hedabide publiko eta pribatuetan jakin dezakegu zein pentsamedu ideologiko duten. Hedabide publikoak objetiboak izan beharko luketen baina ez dira, gobernuak finantzatzen dietelako. Alderdi politiko batean adibidez ezin da egikaritu.

NOIZ APLIKATU DAITEKE?

- **Ildo ideologikoa aldatzea edo informazio orientazioa aldatzea**, hau da bat batean hedabide batek lehen gauza bati buruz informatzea eta orain beste gauza bati buruz. Baldintza bat! Aldaketa hori nabaria izan behar da, sakona, agerikoa. Ezin da izan aldaketa puntual bat adibidez zuzendaritza aldatzea. Aldaketa horrek langilearen eskubideetan eragin behar du, langileak aldaketa hori nabaritzea.
- **Langile batek ezetz esatea informazio baten inguruan lan egitea (komunikazioaren printzipio etikoak urratzen direnean)**, informazio bat ez du landu nahi, ulertzen duelako informazio horrek komunikazioaren printzipio etikoa urratzen duelako.
 - o Gaitzezpena arrazoitua izan behar da
 - o Komunikazioaren printzipio etikoak jokoan egon behar dira
 - Barne mugak: egiazkotasuna eta nabarmentasun printzipioa
- **Orientazio profesionala urratzea**. Hedabide talde batean lan egiten bazaude (adibidez mediaset (talde hauek hedabide ezberdinak jasotzen dituzte) eta beraz
 - o Hedabide batetik beste hedabide batera aldatzen badizute
 - o Aldaketa horrek zure orientazio profesionala aldatzen/urratzen baldin badu
 - o Urraketa hori nabaria izan behar da.

Adibidez mediaseten kasuan , cuatrotik tele cincora pasatze badizute. Hedabide aldaketa izan behar da eta ez hedabide barruan organo batetik beste batera pasatzea.

ONDORIOAK:

- **Zure kontratua bertan behera uztea**. Kontratua apurtzeko eskaera luzatu daiteke, eskubidea izatea kontratua apurtzeko, kontratua enpresaren aurrean egiten da. Enpresak bi aukera: baietz edo ezetz esatea. Baiezkoan, lan kontratua bertan behera geratzen da eta ezezkoan, auzitegietara jo dezakezu, enpresak onartu ez duena auzitegiak onartzeko.
- **Indemnizazioa jasotzeko eskubidea**, kontratua bertan behera geratzen da baina kalte ordain bat jasotzeko eskubidea daukazu. Kontratuan agertzen da zenbatekoa izango den kate ordaina eta ez bada agertzen, kaleratze bidegabeari egokitzen zaion zenbatekoa izango da. Gero eta txikiagoa da 2012tik aurrera.

SUPOSAMENDUA:

Normabit kaleratua izan daiteke arrazoi ideologikoengatik? Ez da posible. Kaleratze hori deuseza izango litzateke (nulo). Kaleratze arrazoi ezberdinak daude, batzuk objektiboak beste batzuk bidegabeak (txarto gauzatu den kaleratzea) eta kaleratze deuseza (oinarrizko eskubideak urratuz kaleratzea eta ondorio automatikoa langilea berronartzea izango da.

Nahiz eta kontzientzia klausula ez existitu, zuk berez baliabideak dituzu zure lanpostua bermatzeko, oinarritzko eskubideak urratzen baditu zure kaleratzeak.

Beraz, kontzientzia klausulak balioko du zure argudioak indartzeko edota azpimarratzeko. landilearen estatutuaz gain erabili daitekeen beste argudio bat izan daitekeelako.

Norbait kaleratua izan bada arrazoi ideologikoengatik enpresak beronartu behar du langilea. **Kaleratze ideologikoen atzean dagoen gatazka, ze gatazka da?** Kaleratzea deuseza izan beada eta langilea beronartu behear izan badute, nola kudeatu enpresaren ideologia ezberdina duen langile batek enpresa horretan bertan lan egitea?

Auzitegiek bilatu duten irtenbidea izan da langilea “eremu desideologizatuetara” eramatea. Politikari buruz adibidez lan egitera eraman beharrean, ba beste eremu batera eramatea.

7. GAIA: (9) SEKRETU PROFESIONALA

9.1. LEGEZKO GARAPEN EZA ETA HORREN ONDORIOAK

Iturrien nortasuna babesteko sortzen da Sekretu Profesionala. Konstituzioaren 20. artikuluan jasotzen da. Nahiz eta honen inguruko lege organikorik ez dagoen, oinarritzko eskubide bezala aurreikusten da eta zuzenean aplikagarria da. Beraz, organo judizialek aztertu beharko dute eta epaileen eskuetan dago sekretu profesionala zertan datzan zehaztea.

Beraz, auzitegiek definituko dute zer den sekretu profesionala (a falta de ley, jurisprudencia). Bestalde, ez daude barne eremuan gai honi buruzko epairik. Horrenbestez, ez dagoenez ez legerik ez jurisprudentziarik, Europako Kontseiluak gai honen inguruan bi gauza egin ditu:

1. Alde batetik Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren jurisprudentziari garrantzia eman gai honen inguruko arazoak konpontzeko.
2. *“Soft law”* izeneko gomendioak erabili, esanguratsuena Europako Kontseiluaren Ministro Komitearena, 2000; kazetariak informazio iturriak ez azaltzeko duten eskubideari buruzkoa.

9.2. SEKRETU PROFESIONALAREN ANALISIAREN AURREKARIAK

9.2.1. Deontologia eta zuzenbidea sekretu profesionalaren arauetan

Aurreko hori bakarrik dago Sekretu Profesionalaren inguruan. Sekretu profesionala lanbidean lortutako informazioa osoki edo zati batean erreserbatzeko dagoen betebeharra edo aukera da. Orduan sekretu profesionala aztertzerako orduan bi perspektiba hartu beharko ditugu kontuan:

- a) SEKRETU PROFESIONALA IKUSPUNTU ETIKO edo DEONTOLOGIKOTIK: Lanbide bakoitzeko Ikuspuntu etikotik noiz gorde behar den sekretua zehaztea. Langile ona izateko beti gorde beharko dugu sekretua ikuspuntu etiko/ moral batetik.
- b) IKUSPUNTU JURIDIKOA: Argudio juridikoak egon daitezke sekretua urratzeko. Arauek bermatzen dutena mugak izan daitezke, eskubide guztiek bezala. Ikuspuntu juridikotik ez da betebeharr bat, baizik eta eskubide bat. Orduan guk aukeratzen dugu egikaritu ala ez eskubide hau. Beraz gure eskubidea egikaritzu apurtzen badugu sekretua, ez litzateke ezer gertatuko. Hau da, zuzenbideak noiz behartzen edo uzten duen sekretu profesionalaz baliatzen eta arau horiek ez betetzearen ondorioak zeintzuk diren.

9.2.2. Sekretu profesionala eskubide eta betebeharr gisa

Sekretu profesionala eskubidea edo betebeharra izan daiteke.

- Profesional jakin batzuentzat betebeharra da.
- Sekretua, isiltasun hori gordetzeko eskubidea, nahiz eta posiblea den aldi berean eskubidea eta betebeharra izatea.

Kazetarien kasuan 20. artikuluan sekretua oinarritzko eskubide gisa aipatzen da eta ez betebeharr gisa.

9.2.3. Informatzaileen eta beste profesionalen sekretu profesionala

Etika eta zuzenbidearen artean: K O N T R A E S A N A

Badago informazioaren profesionalen gain sekretu profesionala betebeharrak? (medikuak, abokatuak, apaizak (pekatuak), langile publikoak....)

- Langile publikoak – adibidez irakasle batek ikasleen informazioa sekretuan mantendu behar du
- Medikua, apaiz, abokatu – betebeharrak berezia dute
- Ileaingandietan – lehen sekreturako betebeharrak, gaur egun ez.

Kolektibo hauen eta informaziorako profesionalaren sekretua ez da berdina:

- 1) Informazio-erlazioaren egitura.** Kazetarien kasuan, iturria, hau da, identitatea babesten da. Medikuen kasuan adibidez edukia.
- 2) Medikua, abokatu... kasuan konfiantza harremana dago.** Informazio-profesionalaren eta iturriaren artean ez dago konfiantzarik.
- 3) Sekretuaren kalifikazio juridikoa.** Medikuen kasuan, sekretua betebeharrak bat da. Informazioaren profesionalen kasuan eskubide bat. Beraz, zenbait kasutan, sekretua gordetze nahitaezkoa denez lanbide batzuetan, legeak argitu behar du noiz nagusitzen den bat eta noiz bestea. Esate baterako delitu baten deklarazioa egiterakoan.
- 4) Babestutako ondasun juridikoa.** Informazioaren profesionalen kasuan, iturria babesten da eta modu horretan informazioa babesten da. Izan ere, eskubide hau gabe iturriak ez du informaziorik emango. Medikuen kasuan, pertsonaren intimitatea babesten da. Hau apurtzen badu medikuak adibidez, kartzela zigorra ezarri dieziokete (3 urte eta erdi, benetako kasu batean).
- 5) Sekretuaren konstituzio-kokagunea.** Informazio askeaz baliatzeko eskubideak Konstituzioaren 20. artikuluan batzen dira. Beste kasu batzuk, hala nola deklaratzeko betebeharrak, Konstituzioaren 24. artikuluan jasotzen dira.

Beraz, ondorio bezala esan daiteke ez litzatekeela egokia sekretu profesionalari tratu uniformea emango diona rauketa bateratua onartzea.

9.3. SEKRETURAKO OINARRIZKO ESKUBIDEAREN FUNTSEZKO EDUKIA: KONTZEPTUA, SUBJEKTUAK ETA OBJEKTUA

9.3.1. Nork egikaratu dezake, kazetariak soilik edo herritar orok?

Sekretu profesionalaren inguruan lehenengo arazoa da ea kazetariak soilik dagokien, edo adierazpen-eta informazio-askatasunaz baliatzen diren subjektu guztiei dagokien eskubidea den zehaztea.

Espanian, hipotesi bat besterik ez den arren, printzipioz edozein herritarrek egikaratu dezake eskubidea, eta ez soilik kazetariak.

Eskubide honen subjektu titularra, EEBNn kazetaria da soilik. Europa mailan, subjektu gehiago izan daitezke. Informaziorako profesionala hartuko dugu subjektutzat eta ez kazetaria. Kontzeptu hau zentzu zabal batean ulertuta.

9.3.2. Eskubidearen objektua

Sekretu profesionala: Iturrien nortasuna babesteko ahalmena ematen duen oinarritzko eskubide bat. Informaziorako profesionali ezarritakoa (nahiz eta aipatu ditugun kasuak ere sekretu profesionalen baina ezberdinak dira).

Zer babesten da sekretu profesionalarekin? Iturrien nortasuna, identitatea. Nortasuna babestean, nortasun hori ezagutzeko balio duen edozein informazio babesten da.

9.4. INFORMATZAILEEN SEKRETU PROFESIONALAREN MUGAK

Noiz apurtu behar da sekretua? (HIPOTESIAK DIRELA GOGORATU, EZ BAITAGO LEGERIK)

1. **Sekretu profesionala hirugarrenen aurrean:** Zure nagusia ez den beste lankideen aurrean? Mugagabea da sekretua. Gorde daiteke, sekretuaren eskubidea absolutua da.
2. **Sekretu profesionala kazetaritza-enoresaren baitan:** Iturriaren identifikazioa eskatzen duena zure nagusia bada, sekretu profesionala **absolutua** da baita ere. Kontua da, beto-eskubidea existitzen denez, kazerariari iruditzen bazaio nahiko egiazaturik ez dagoela informazioa, aukeratu ahal duela ez argitaratzea. Beraz, bi eskubide hauek (kazetariaren sekretua eta beto-eskubidea) bateratuko dituen sistemaren bat bilatu beharko litzateke. Kasu hauetan irtenbide ezberdinak daude:
 - i. Aukera bat, zuzendariari nortasuna ez ematea eta informazio horren erantzule bakarra adibidez kazetaria izatea, eta ez zuzendaria edo jatorritzko iturria.
 - ii. Beste aukera bat zuzendariari iturria esatea baina informaziorako profesionalaren agindupean egongo da. Iturria informazioaren profesionalarena delako eta ez zuzendariarena.
3. **Sekretu profesionala autoritate publikoaren (administrazioaren) aurrean.** Administrazioak botere exekutiboa/betearazlea dauka. Honi dagokio araudia aplikaraztea? Ez. Epaiei dagokie beraz sekretua gorde daiteke. Botere betearazlearen aurrean orduan gorde daiteke sekretua. Delitutzat jo daiteke, adibidez polizia batek derrigortzea.
4. **Sekretu profesionala parlamentuaren aurrean.** Parlamentuak botere legegilea du, herriaren ordezkariak osatzen dute. Hemen sekretua ere mantendu daiteke. Parlamentuko batzorde horietan agertzen direnak derrigortuta daude horra joatera eta egia esatera baina isilik ere egon daiteke eta beraz sekretua mantendu dezake.
5. **Sekretu profesionala auzitegi eta epaileen aurrean.** Faktore hauek kontuan hartu behar dira suposamendu hipotetiko batzuetan:
 1. Fiskalaren aurrean ez da apurtu behar, baina EPAILE eta AUZITEGIEN aurrean bai.
 2. Berdina da lekuko jardutea auzitegi batean ala akusatu bezala? Lekuko bezala egia esan behar duzu bestela delitu da (falso testimonio). Beraz hor sekretuak zentzua dauka. Baian ez du esan nahi apurtu daitekeenik, **baizik eta planteatu daiteke apurtzea ala ez**. Baina zuk egin baduzu delitua eskubide bat duzu gezurra esateko. Orduan akusatu bezala gezurra esan ahal baduzu sekretuak ez dauka zentzurik. Profesionalak lekuko bezela jarduten badu beharrezkoa da esatean.

3. Berdina al da prozesu penala eta zibila? Prozesu zibilean jokoan dagoena dibortzioak, herentziak eta horrelakoak dira, beraz ez interes orokorreko kontuak. Baina prozesu penaletan interes orokorreko kontuak daude jokoan. **Beraz prozesu penaletan dauka zentzu gehiago sekretua apurtzeak.**
4. Delitua gertatu izana edo delitua ez gertatu izana ez da gauza bera. Hau da, gauza bera al da sekretua apurtzearekin gertatu ez den zerbait ekidin ahal izatea edo jadanik delitu hori gertatu izana. Sekretua apurtzearekin agian ekidin daiteke delitua. Beraz, sekretua apurtzeak zentzu gehiago izan dezake oraindik delitua egin ez denean eta ekidin daitekenena.
5. **24 EK. DERECHO A LA TUTELA JUDICIAL EFECTIVA:** Pertsona baten errugabetasuna jokoan dagoenean. Zuk esaten duzunaren arabera pertsona batek hobeto ala okerrago babestu ahal baldin bada bere burua, agian ondo dago sekretua esatea. Sekretua apurtzea frogabide oso garrantzitsua baldin bada derrigortua zaude kontatzera.
6. **GARRANTZITSUENA:** Berdina al da ohorea jokoan egotea edo pertsona baten bizitza kolokan egotea? Ba ez. Zein ondasun juridiko dagoen jokoan (zuk dituzun eskubideak adibidez). Horregatik daude desberdinduta, ohorea, bizitza askatasuna, sekretu ofizialak, errugabetasuna... Zentzu gehiago edukiko du sekretua apurtzeak bizitza edo errugabetasuna jokoan dagoenean.

Ikasterako orduan eta azterketan sartzen baldin bada, batez ere interesatzen zaiona da faktore hauek kontuan hartzea. Ohorea eta horiek ondo dudu, baina garrantzitsuena sei puntu horiek dira.

9.5. KAZETARIAREN ITURRIEN BABESAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Kontuan hartu behar da araudirik ez dagoela, eta araudi hipotetiko batez hitz egiten dugula. Araudi horretan beste hiru eduki agertu beharko lirateke:

Uste da, era berezi batean babestu behar dela profesionalaren eskubide hau, eta beraz, berme bereziak behar dituela informazioaren profesionalaren eskubide honek:

- a) **Informatzailearen komunikazioen sekretuaren babesa:** 18.3 EK: Denok daukagu eskubide hau, inork ezin dituelako gure intimitateak ezagutu. Era berezian babestu behar da informazioaren profesionalen eskubide hau?
 - Bai, berez orokorrean dauden bermeak baino gehiago aplikatu beharko lirateke. Posiblea den arren (zaila da) legegileak kazetariarentzat erregimen berezia ezartzea. Beste herritarrak baino babestuago egoteko.
 - Ez da bakarrik mezua babesten, baita beste datu batzuk ere.
 - Bakarrik komunikazioa ematen denean, ez agortu denean.
 - Printzipioz, bakarrik ebazpen judizialaren bitartez mugatu daiteke.
- b) **Informatzaileen babesa bere etxebizitzan edo laneko lekuan egindako erregistroen aurrean: Bortxaezintasunerako eskubidea.** Baimen judiziala behar da eta soilik azken aukera gisa posible da.

Horrela ez balitz jokatu sekretu profesionalerako eskubidea bortxatuko litzateke. Oso larria da GEEA-
rentzat erregistro judizialak egitea kazetariaren iturria aurkitzeko helburuarekin. Beraz
bortxaezintarunerako eskubidea dagoen arren, berme gehiago exijitu beharko lirateke.

- c) Ezagutzen diren delituak salatzeke betebeharra? **Ley de enjuiciamiento criminal:** Ezagutzen diren
delituak salatzeke betebeharrak, bestela delitua da. betebeharrak honetatik aparte abokatuak eta apaizak
daude. Delitu bat ezagutzen baduzu salatzeke betebeharra duzu.

8. GAIA. (10) OHORERAKO, INTIMITATERAKO ETA NORBERAREN IRUDIRAKO

ESKUBIDEA (I)

10.1. ERREGIMEN KONSTITUZIO-JURIDIKOA, KONTZEPTUAK ETA TITULAR DIREN SUBJEKTUAK

E.K-ren 20.4 artikulua araberan, adierazpen- eta informazio-askatasunen mugak, batez ere ohorerako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea dira. Ez dira mugak soilik, oinarritzko eskubideak dira ere.

Nolanahi ere, konstituzioak ez ditu ohorea, intimitatea eta norberaren irudia definitzen, hobeto da zehaztea ze jarduerak bortxatzen dituzten eskubide horiek.

ZER DA OHOREA? Ohorea une bakoitzean gizartean indarrean dauden arauen, balioen eta ideien arabera sortzen eta aldatzen da. Juridikoki erabiltzen diren kontzeptuak ohorearen inguruan honako hauek dira: fama, estima... Besteek guri buruz dituzten kontzeptuak edo iritziak.

- Ohorea **pertsonaren duintasunari** loturik doa. Norberak bere burua nola baloratzen duen da duintasuna. Pertsona batek ez dauka besteak baino ohore gehiago, baina hori baldintzatu dezakeen gauza bakarra "pertsonaren aurretiazko jokaera" da.
- Ohorea subjektiboa da, zeren pertsona batzuk gauza batzuegatik sentitu daitezke ofendituta eta beste batzuk ordea ez. Beraz, ohorea erasotua egongo da pertsona bat beste baten aurrean umiliatu denean, bai eta haren autoestimua aurka egin denean.
- Kontzeptu aldakorra al da? Bai, denboraren poderioz aldatzen da. Adibidez aitona bati homosexuala deitzen badiogu ofendituko da, gaur egun agian ez hainbeste.
- Ohorea arriskuan jar daiteke pertsona baten prestigio profesionala ukitua ikusten bada. Pertsona baten prestigio profesionala kaltetua ikusteaz gain duintasuna ere urratu beharra dago, eta orduan bai ikusiko litzatekeela ohorea arriskuan.
- Ohorearen bidez "errugabetasun-presuntzioa" ere babes daiteke. Pertsona baten egoera prozesala era egokian ez agertzea edo gaizki deskribatzea pertsona horren egoera prozesalak ohorea urra dezake.
- Pertsona fisikoek, ohorea daukate baina ez dauka zertan bizirik egon behar. Pertsona juridikoek ere ohorea daukate. Nortasun juridikorik ez duten (etnikak, arrazak...) taldeek ere ohorea daukate. Eta subjektu publikoek ere ohorea daukate (koroa, estatua, autonomia erkidegoak...).

ZER DA INTIMITATEA? Konstituzioak norberaren zein familiaren intimitaterako eskubidea babestu. Bestalde, intimitateak duintasunarekin harremana dauka.

- a) Norberak daukan bere barneko eremu bat besteengandik gordetzeko eskubidea da intimitatea. Bi elementu:
 - i) Objektiboki informazioa sentibera izan behar da, eta info hori da babestu beharrekoa.
 - ii) Ahalmen negatibo bat izan behar du, besteek nire kontra zerbait ez egiteko ahalmena.
- b) Kontzeptu oso subjektiboa. Pertsona fisikoek intimitatea dute. Pertsona juridikoek EZ daukate intimitaterik.

- c) Izaera hedakorra (geroz eta gauza gehiago babesten ditu intimitateak): GEEAn batez ere: gogaitua ez izateko eskubidea (zure etxebizitzan bizitza normala mantentzeko eskubidea).

IRUDIRAKO ESKUBIDEA

- Pertsona/subjektu baten errepresentazio grafikoa babesten du irudirako eskubiedak. Baina ñabardura batzuk:
 - errepresentazio grafikoak ez du bakarrik irudia babesten, baita ahotsa ere, pertsona baten izena edota pertsona bati buruzko ideia.
- Ezberdindu behar dira:
 - Eduki patrimoniala: pertsona batek bere irudia nola saldu dezakeen (derechos de imagen).
 - Eduki pertsonala: duintasunarekin harremana daukana, pertsona batek nire irudia urratu dezak nire irudia erabiliz eta hortaz nire duintasuna urratzen du.
- Pertsona baten irudia urratu daiteke bere irudia erabiliz edota karikaturak erabiliz.

Hiru eskubide ezberdin dira, ohorea, intimitatea eta irudirako eskubidea. Baina, kontuan hartu jarduera batek, iritzi batek, gauza ezberdinak urratu ahal dituela. Jokoan ez da zertan bakarrik eskubide bat egon behar, izan ere jarduera batekin eskubide asko urratu daitezke.

10.2. ERANTZUKIZUNA ESKATZEKO BIDEAK: Hiru bide daude:

Kaltetuak babesa eska dezake hiru bide ezberdinetik:

- Hau ez dugu ikusiko, bide administratiboa. Administrazioaren aurrean babestu daitezkeela intimitatea ohorea eta irudia. Hori egiteko, arau administratiboak erabiliko dira. Zigor administratiboa jarri ahal dizute kamiseta horia jartzen baduzu futboleko ligaren finalean. INTERES OROKORRA BABESTU.
- ERANTZUKIZUN PENALA: Zu erantzule bazara, zigorra jarriko dizute Kode Penal aplikatuz. Kode penal urratzeagatik aplikatuko da zigorra, eta penalki zigortuko zaituzte. INTERES OROKORRA BABESTU.
 - Erantzukizun penala eskatzeko kereila tarteratu behar izango da. Kereila hauek kasu gehienetan pribatuak dira. Hau da, kaltetuak ez baldin badu eskatzen ez da egongo juiziorik. Bai demanda bai kereia biak pribatuak izanik, kaltetuak tarteratu beharko ditu prozesu penala egoteko. Beraz kaltetuak ez baldin badu ezer egiten.
- ERANTZUKIZUN ZIBILA: Erantzule bazara bide zibilean, indemnizazio bat (kalte ordaina). Arau zibila urratzen bada ez zaizu zigorrak aplikatuko, kalte ordainak eskatuko zaizkizu kaltetuari indemnizartzeko. KALTETUA BABESTU.
 - Erantzukizun zibila eskatzeko tarteratuko (jarriko) da demanda bat. Demanda hori pribatua da, kaltetuak jartzen ez baldin badu ez da prozesua hasiko. Beraz, kaltetuak aukeratzen du demanda jarri edo ez.

Zigorrak eta kalte ordainak ez dira excluyenteak, bata ez du bestea kentzen. Zigorra jarri ahal digute et aldi berean kalte ordainak ordaintzeko bete beharra. Ezin zaigu jarduera beragatik bi aldiz zigortu.

Kaltetuak erantzukizun ezberdinak eskatzerako orduan aukera ezberdinak planteatu ditzake:

1. **Erantzukizun zibila eskatzea penala eskatu gabe.** Demanda bat jarri zuen beraz, ez zuen erantzukizun penalik eskatu.
2. Kontrakoa posible da: **Erantzukizun penala eskatzea eta eta zibila ez.** Kaltetuak erantzukizun penala exijitzen du >>>> zigorra (kartzela zigorra izan daiteke, edo isun bat...).

3. **Normalena izango da biak eskatzea:** zigor bat ezartzea eta kalte ordaina eskatzea. Biak eskatzeko bi aukera:

a. Posible da bakarrik auzitegi penaletan bai erantzukizun zibila bai erantzukizun penala eskatzea. Hau da, auzitegi berdinaren aurrean bai zibila bai penala eskatzea. Orduan auzitegi berdinak biak erabakiko ditu.

b. Edota, posible izango da bi bide ezberdinetik joatea. Alde batetik bide penaletik joatea erantzukizun penala eskatzeko. Eta bestetik, bide zibiletik joatea erantzukizun zibila eskatzeko.

- Zein da egokiagoa A edo B? Hobeto da B bidea jarraitzea. Zergatik? Nahiz eta bi aukeretan aplikatuko den araudia berdina izango den, praktikan, batez ere erantzukizun zibila lortzerako orduan auzitegi zibilek erraztasun gehiago planteatzen dituzte.

A bidean (auzitegi penala), delitua egon behar izaten da erantzukizun zibila onartzeko ere. Hemen, ez badago zigorrik ez dago erantzukizun zibilik ere ez.

B bidean, errazagoa da erantzukizun zibila lortzea. Gainera aukera hau aurrera eramateko kontuan hartu behar dugu bide penalak lehentasuna daukala zibilarekiko. Hau da, lehenengo erantzukizun penala argituko da eta gero zibila.

ERANTZUKIZUN ZIBILA: Kalte ordaina dagoen ez dagoen eta zenbatekoa izango den kontuan hartuko duen legea 1/82 lege organikoa kontuan hartuko da. Bide zibiletik zein penaletik eskatu daiteke erantzukizun zibila, eta bi bide horietatik beti 1/82 legea kontuan hartuko da.

ERANTZUKIZUN PENALA bakarrik eskatu daiteke bide penalean. Eta Kode Penalaren arabera egingo da, hau da auzitegi penalekoek bakarrik esan dezakete erantzukizun penala dagoen ala ez.

10.3. ORAIN SAKONDUKO DUGU OHORERAKO, INTIMITATERAKO ETA NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA 1/82 LEGE ORGANIKOA

Eskubide hauek (ohorea, intimitatea eta irudia) 1/82 Lege Organikoaren arabera ukaezinak, besterenduezinak eta preskribaezinak dira.

- Duintasanari loturik dauden eskubideak direnez, eskubide hauek **ukaezinak** dira, hau da, ezin dira desagertu. Dena dela, jarritako demanda bat kendu daiteke edo direktamente ez jarri.
- **Besterenduezinak** dira, hau da, ezin zaizkio beste bati eman. Eskubide honen titulartasuna norberari dagokio.
- **Preskriba ezinak** dira. Hau da, denboraren poderioz eskubide hauek ez dira desagertzen. Baina bi ñanardura egin behar dira:
 - Demanda tarteratzeko epe bat dago, 4 urteko epea. Lau urte pasata, demanda hori preskribatzen da.
 - Nahiz et denboraren poderioz ez diren desagertzen eskubideak, kaltetuak izan dezakeen jarrerak kaltetu dezake bere eskubidearen helmena. Hau da, denborak ez du desagerrarazten eskubidea, baina beste gauza bat da denbora horretan zehar nik zer egin dudana eskubide horrekin. Zure eskubideen helmen (noraino heltzen diren) baldintzatu dezake. Horrek valdintzatu dezake eskubideen indarra.

Subjektu legitimatuak

Norbaitek urratzen baditu gure ohorea, intimitatea eta irudia eta erantzukizun zibila eskatu nahi badugu demanda bat tarteratuko dugu. Nork tarteratu ahalko du demanda hori? Kaltetuak. Ñabardurak:

- a. Kaltetua **hil** egiten bada, lehenengo planteatu behar da hildakoak eskubiderik duen. Baina jurisprudentziak dio hildakoek ohorerako eskubidea dute. Intimitatea eta irudia ez hainbeste. Baina hildako baten ohorea familia baten ohorea da ere. Orduan nork egikaritzen du demanda? Zuk testamentuan aukeratzen duzu. Beraz, demanda tarteratuko du testamentuan agertzen denak.
- b. **Adintxikia** bada: legezko ordezkariak egikaritu ahalko du eskubidea. adingabeen kasuan tutela berezia dago. Fiskaltzak ematen du babes berezia. Fiskaltzak kontra egion ahal dio adin txikiko ordezkari horri.
- c. Gerta daiteke kaltetua ez izatea subjektu zehatz bat, baizik eta **talde bat** eta **talde hori ordezkatzan duten elkarrekin**.

ZER EGIN DAITEKE 1/82 LEGEAREKIN

Zer debekatzen du lege organiko horrek (1/82)?

Bi elementu kontuan hartu behar dira, alde batetik legeak esaten duena eta bestetik beste elementu batzuk. Batez ere kontuan hartu beharko dugu:

1. 1/82 Lege organikoak dioena kontuan hartu behar da (7. artikulok dioena).
2. Jurisprudentzia:
 - Barne eremuan (Konstituzio auzitegia, auzitegi gorena eta entzutegi nazionala).
 - Kanpo eremuan (GEEA eta EBJA Europar Batasuneko Justizia Auzitegia).
- Usadioa: Ohiturak. Alde batetik gizartearen ohiturak (usadioa). Eskubide hauek babes handiagoa edo txikiagoa izatea baldintzatuta egon daiteke pertsonaren usadioaz ere. Baina azkenengo hau aldatzen hasi da. Berdin du zer egin duzun aurretik, jadanik horrek ez duelako zertan baldintzatu behar zure oraina.

ESKUARTZE EZ-LEGITIMOEN SUPOSAMENDUAK (aurrekoaren jarraipena): Hauek ez legitimotzat ematen dira, bidegabeko eskusartzeak.

1. Intimitatea jaso dezaketen tresnak kokatzea arau haustea suposatzen du, erantzukizun zibila. Adibidez aldagela batean kokatzea kamara bat.
2. Aurrekoaren berdina baina ez bakarrik kokatzea baizik eta erabiltzea ere.
3. Argitaratzea bizitza pribatuko gauzak, pertsona horren irudia eta izen ona kaltetu ditzaketenak. Intimitatea eta ohorea daude jokoan.
4. Lana dela medio, norbaitek bere jardueran ezagutu dituen datu pribatuak publiko egitea. Adibidez mediku batena, edo psikologo batena.
5. Pertsona baten irudia erabiltzea orokorrean, ateratzea argazkia edo zabaltzea. Berdin duelarik irudi horrek harremana izatea bizitza pribatuarekin edo ez. Hau da, intimoa den ala ez. Honek bi arazo sortu ditu:

- a. Kamera ezkutua erabiltzearena. Erabili ahal dira? 2012an konstituzio auzitegiak epai bat eman zuen. Kasu horretan, pertsona zehatz baten kasua aztertzen zen. Epai horretan KAK debekatzen zituen kamera eskutuak. Alde batetik intimitatea urratzen zuelako. Baina GEEAK kamera ezkutuen erabilera baimendu zuen bi baldintza bete ezkerok:
 - Intimitatea eta irudia urratuko badira adibidez irudia pixelatuz. Hau da, proportzionaltasuna gordez, hau da, ahalik eta kalte gutxien sortuz.
 - Kamera ezkutua erabil daiteke "ultima ratio" bezala, hau da, azken tresna bezala. Hau da, infoa lortzeko beste biderik ez baldin badago.
- 6. Pertsona baten irudia, izena... erabiltzea publizitatea egiteko.
- 7. Pertsona bati zerbait egin duela egozte edo pertsona bati buruzko iritziak argitaratzea
- 8. Zuk delitu bat egin eta gero hori ezin duzu erabili nabarmentasun publikoa lortzeko edo benefizio ekonomikoak lortzeko. El pequeño nicolas. Ezin da delitua egin duen pertsona bat erabili dirua lortzeko, adibide garbiena pequeño nicolasena.

ESKU SARTZEA JUSTIFIKATZEN DUTEN SUPOSAMENDUAK: Honako baldintzaren bat betetzen bada, portaera hori ez da bidegabekotzat joko:

1. Lege batek posible egiten duenean eta autoritate publikoek (epaileek) baimentzen dutenean. Lege batek esaten baldin badu zure telefonoa begiratu daitekeela ahalko da egin.
2. Kaltetuak egintza bat aurrera eramateko adostasuna erakutsi duenean. Ñabardurak:
 - a. Adostasunak ez du zertan espresa izan behar. Kasu batzuetan onartu da isilbidezko onarpena. Paper bat con la cruz de si quiero, 30 egunetan ez baduzu kentzen gurutzea ezkonduko zara. Hori da isilbidezko adostasuna.
 - b. Adostasuna atzera bota daiteke, revocablea da, adostasuna eman ahal izan duzu baina hobeto pentsatu ondoren ezezkoa esaten duzu.
 - c. Adintxikien eta ezgaituen kasuan, adostasuna erakutsi ahal dute heldutasuna nahikoa dutela erakusten baldin badute.
3. Baita ere justifikatuta egon daiteke intimitatea urratzea interes zientifiko, historiko, kultural garrantzitsua dagoenean tartean.
4. Babes berezi bat daukate parlamentariak, beraien jardueraren egikaritzan esaten dutena oso babestuta dagoelako konstituzioan. Honi deitzen zaio BORTXAEZINTASUN PARLAMENTARIOA. Hau apunteetan konfusoa da: gauza bat da bortxaezintasuna eta bestea da immunitatea.
 - a. Bortxaezintasunak erreferentzia egiten dio adierazpenei.
 - b. Inmunitateak erreferentzia egiten dio suplicatorioari. Penalki kondenatuak izan ahal izateko parlamentariak, eta kondena horrek kartzela zigorra ekarriko badu, auzitegiak suplikatorioa eskatu beharko dio dagokion parlamentuari kondenatu ahal izateko pertsona horri.
5. Irudirako eskubidea urratzen duen kasuen justifikazioa:
 - a. Pertsonaia publikoa izatea eta leku publiko batean egotea pertsonaia publiko hori. Bere irudirako eskubidea ia ia anulatu egiten da. Posible da grabatzea edo argazkia ateratzea.
 - i. Kargu publikoak (politikokoak)
 - ii. Garrantzia publikoa lortu duten pertsonak (bai profesioagatik edo bestelako jarduera batengatik)...
 - iii. Ez da hain garrantzitsua jada pertsonai garrantzitsua leku publikoan egotea, baizik eta garrantzitsuena da argitaratzen den ifnormazioak garrantzia publikoa daukan ala ez.

- b. Pertsona pu liko baten karikatura egin daiteke helburua iraintzen ez bada eta difamatzen ez bada.
- c. Irudiari dagikionez, norbaiten irudia erabili daiteke interes orokorreko berri bat ilustratzeko. Beti ere pertsona horren beste eskubide bat urratzen ez bada, hala nola, ohorea.

Prozesu judizial baten helburua:

Kontuan hartu behar da Erantzukizun zibilaren kontuan ez dela behar elementu subjektibo berezi bat egotea arauhaustea dagoela onartzeko. Hau da, kaltea sortu duenak ez du borondate berezi bat aurkeztu behar.

Zein da prozesu zibilaren helburua? Hau da, zer bilatzen da norbait demandatzen dugunean? Juizio batera eramaten dugu pertsona helburu batekin. Eta helburu hori lau gauza hauek lortzea da:

1. Nire egorea berriz ere normaltasunera bueltatzea. Kaltea sortu zidaten aurreko egoerara bueltatzea.
2. Etorkizunean berriro kaltea ez sortzea ahalbidetzea (prevencion).
3. Kalte ordain bat bilatzea, indemnizazioa.
4. Kaltea sortu didanak onurak jaso baldin baditu kalte horrengatik, onura horiek niri ematea.

Lau puntu hauek lortzeko ze mekanismo daude? Bi:

1. **Neurri kautelarrak** hartzea (bahiketa). Prozesua hasi aurretik edo bitartean, adibidez programa bat ez emititzea.
2. **Behin betiko neurriak**, epaila. Azken neurria:
 - a. Epailak bilatuko duena, garrantzitsuena kalte-ordaina da. Auzitegiak hartzen duen azken erabakia. Azken erabaki honi buruz bi gauza:
 - i. Epailak kalte ordaina zehaztuko du, kalte ordain horretan sartuko dira kalte materialak zein kalte moralak.
 - ii. Kalteordaina zehazterako orduan, maximo eta minimo bat egongo dela kontuan hartu behar da. Maximoa kaltetuak eskatu duena izango da.
 - iii. Kalte ordaina ordaintzerako orduan erantzukizuna solidarioa da. Hau da, edozeinek ordaindu ahal duela eta gero haien artean konponduko dira. Adibidez cufuentes, bi pertsonen kontra egin duela, bi horietako batek ordainduko du dana.

11. GAIA. OHORERAKO, INTIMITATERAKO ETA NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEA: **BABES PENALA ETA GATAZKAK EBAZTEKO KONSTITUTZIO-DOKTRINA**

11.1. OHORERAKO ESKUBIDEAREN BABES PENALA

Zigor Kodeak banandurik tratatzezen du ohorerako eskubidearen eta intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen babes penala. Ohorerako babesa despenalizatzearen aldeko mugimendu nabaria. GEEAak eremu horretan espetze zigorrak ez aplikatzearen alde egin du.

11.2. IRAIN-DELITUA

Iraina beste pertsona baten duintasuna hausten duen ekintza edo adierazpena da, pertsona horren ospeari kalte egiten diona. Iraina egon dela kontsideratzeko betekizun batzuk behar ditu:

1. **Elementu objektiboa:** Zeozer esan edo egin dela erakutsi behar da.
2. **Elementu subjektiboa:** Iraintzeko asmo zehatza egon behar da "*animus iniurandi*". Iraintzeko asmoa dagoen edo ez ikusi behar da.

Jendeak larritzat hartzen dituenean soilik izango dira delitu irainak. Irainak informazio faltsuztat hartzen badira ez dira delitu izango. Irainak iritziak izan ohi dira, baina irain-delitua egin duena erantzukizun penaletik libratu daiteke *exceptio veritatis*-a demostratzen badu. Hori da egindako adierazpenen egiazkotasuna frogatzea, baina hori egitea zaila denez ezin daiteke aplikatu.

11.3. KALUMNIA DELITUA

Kalumnia da gezurra den delitu bat pertsona bati egozte. Hiru elementu ditu kalumnia delituak:

1. **Elementu objektiboa:** Delitu bat pertsona bati egozti behar zaio, jakinda faltsua dela edo informazioa kontrastatu gabe.
2. **Elementu subjektiboa:** Informazio horren helburua kalumniateko asmoa izan behar du: "*animus calumniandi*". animus calumniandi. Kasu honetan exceptio veritatisak badu bidea judiziala frogatzea lortzen baduzu kontrastatu egin duzula.

11.4. IRAIN ETA KALUMNIA DELITUEN BERDINTASUNAK

Biek daramate erantzukizun penala, zigor penala. Elementu hauek kontuan hartu behar dira:

1. Pribatuak dira, eta kaltetuak kereila bat jarri beharko du zigorra egoteko. Salbuespen batzuk, kaltetuak langile publikoak direnean, kasu horretan interes orokorra jokoan dagoelako. Kaltetuaren barkamenak bertan behera usten du.
2. Kalumnia eta iraina publizitatearen bidez egin dela ulertuko da, baldin eta inprimatu bada edo hedabideren bat erabili bada mezua argitaratzeko. Kasu honetan, erantzukizun zibila solidarioa izango da.
3. Kaltea sortu duenak aitortzen badu informazioa faltsua dela, eta horoetan atzera jotzen badu, jasoko duen zigorra txikiagoa izan ahalko da.
4. Epai kondenatzaileak ekarriko du epaia argitaratzea.
5. Erantzukizun penala mailakatua da: 1. Erantzulea kaltea sortu duen egilea kazetaria, bigarren erantzulea (ez bada egilea aurkitzen ez identifikatzen) hedabidearen zuzendaria, bestela enpresaren zuzendaria, enpresa argitaratzailearen aurka, zabaltzaile edo hedatzailearen aurka. Enpresa grabatzailea erreproduzitzailea edo inprimatzailearen zuzenbidea. Erantzukizun mailakatua existitzeko

frogatu behar da erantzukizuna izan zutela hauek.

6. Delitua egin denik urte bat dago kereila tartekatzeko.
7. Beste pertsona bati edo bere familiaren aurka irain edo kalumnia egitearekin mehatsu egitea ere delitua da.

NIK HARTUTAKO APUNTEAK (AURREKOAREN JARRAIPENA): OROKORREAN KURTSOAN ZEHAR EMAN DUGUNAREN LABURPENA.

1. Zein eskubide ari gara egikaritzen? Adierazpen askatasuna edo informazio askatasuna? Ze kriterio erabiltzen da? Elemento preponderante (ikuspuntu kualitatibotik zein dagoen gehien).
2. Pausua, galdetu beharko diogu gure buruari beldetzen al ditut barne mugak? Barne mugak dira: 1) Egiatzotasun printzipioa. 2) Nabarmentasun publikoa.

Azterketa hau ematean bi emaitza:

- a. Barne mugak betetzen dira? Erantzuna bai baldin bada ez dugu ezer gehiago aztertu behar, gure lana publikatu eta informa dezakegu. Adierazpen askatasuna eta onformaziorako eskubidea betetzen badira, nagusitasuna dute beste eskubideen gain.
- b. Erantzuna ezezkoa baldin bada, ez baditugu barne mugak betetzen. Aztertzen jarraitu behar dugu. Eta beraz 3. pausu batera jarraitu beharko dugu: Kanpo mugak.
3. Kanpo mugak: hauek beste eskubideak dira (ohorea, intimitatea eta irudia). Beste pertsona baten eskubideren bat urratzen al dut? Kanpo muga bat al dago nik egikaritutako dudana mugatuko duena? Urratuta egon daiteke beste pertsonen intimitatea ohorea eta noseke nik plazaratu nahi dudana informazioarekin? Kanpo mugek beti 3 betekizun errespetatu behar dituzte baliozkoak izan daitezkeen:
 - i. Lege batean aurreikusita egon behar da.
 - ii. Muga horrek babestu beharko duen interesa edo ondasuna juridiko garrantzitsua izan beharko da.
 - iii. Muga hori proportzionala izan beharko da. Orekatu egin beharko da bi eskubideen arteko talka hori.

Kanpo muga identifikatzerakoan, edukiko ditugu bi eskubide talkan. Nire adierazpen askatasuna eta beste norbaiten kanpo muga bat (adierazpen askatasun a Vs. ohorea adibidez). Orduan suposamendu ezberdinak egon daitezkeenez, irispide ezberdinak daude. Berez segun zein eskubidek egiten duten talka, irispide ezberdinak erabiliko dira aztertzeko.

4. AZKEN PUNTUA DA ERANTZUKIZUN ZIBILA (indemnizaioa kalte ordaina), PENALA (zigorra) edo ADMINISTRATIBOA sortuko duen argitaratuko dugunak.

HAU DA 11. GAIKOA

Orduan kanpo mugei dagokionez:

1. Lehenengo talka izan daiteke adierazpen askatasuna Vs. OHOREA. (normalean irainak, iritzi bat eta norbaiten ohorea kolokan). Ze irispide aplikatu behar dira?:
 - i. Adierazpen askatasunaren egikaritzea zein punturaino den beharrezkoa, edo ekarpen bat eztabaida publikoa. Hau da, zein punturaino duen garrantzia ohorea urratu ahal duen adierazten duzun horrek. Ea zure adierazpenak dohako iraina edo mospresua suposatzen duen.
 - ii. Kargu publikoek, beraien ohorea urratua ikusteko betebeharrak handiagoa dute. Hau da, gehiago aguantatu behar dutela. Kritika handiago batera sometituta daudelako.

- iii. Kontuan hartu beharko da pertsonaren aurretiazko jarre ra izan den. hau da, historikoki pertsona horrek izan duen aurreko jarrera zein izan den. nahiz eta dakigun puntu honi interroganteak jarri behar dizkiogula, zeren, benetan da garrantzitsua aurretiazko jokabidea?
 - iv. Ohorea urratu dezaketen adierazpenak (irainak) baloratuko dira sortu diren kontextuan eta ez era isolatuan.
 - v. Kontuan hartu beharko da zein testuingurutan eman den iraina. Ezabaida baten barruan, era reflexibo batean eman baden...
 - vi. Ohorea ez da aztertzen ikuspuntu subjektibo batetik, baizik eta objektibo batetik.
 - vii. 4. gaian iritzpide orokorrak eman genituen, talde zehatzen ohoreak urratzen zirenenan aplikatu behar ziren irizpideak. Hau da, ideologia adierazteko askatasunaren inguruan.
2. Bigarren talka INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA Vs. OHOREA (kalumniaren kasuan). Ezdakit nor lapurra da!. Kasu honetan kontuan izango ditugun faktoreak: Barne mugak:
- i. Informazioa egiazkoa den ala ez, egiazkotasuna ikuspuntu subjektibo batetik (kontrastatzeko lan hori egitearekin nahikoa).
 - ii. Informazioak interes publikoa daukan ala ez.
 - iii. Aurrekoarekin lotuta doa, ez egotea dohako irainak. Hau da, justifikazio gabe egotea irainak. Dohakoa ez izatea.
 - iv. Kargu publikoek beraine ohorea urratua ikusteko betebeharrak handiagoa dute.
 - v. Pertsona horren aurretiazko jarrera kontuan izan beharko da. (Beti ere interroganteekin, irizpide hau zalantzan jartzen baita).
 - vi. Kontuan hartu informazio hori bere kontestuan hartu beharko dela kontuan eta ez era isolatuan.

Suposamendu honek (INFO. ESKUBID. Vs. OHOREA) ñabardura edo kasu berezi bat dauka: ERREPORTAIA NEUTRALARENA. Zuk argitaratzen duzula beste pertsona batek esandako zerbait. Hori neutrala da nik ez dualako ezer aportatzen. Kasu honetan hau aztertzen da:

- a) Informazio horren garrantzia publikoa, interes publikoa daukan ala ez. Ia bete horren esandakoa eta guk kaleratu dugunak interes publikoa duen.
- b) Egiazkotasuna aztertzerakoan ñabardura dago. Ez da aztertzen argitaratutakoa egiazkoa den ala ez, bazik eta ea benetan beste pertsona horrek hori esan duen ala ez. Ez edukiaren egiazkotasuna baina bai pertsona horrek esandakoak eta zuk publikatutakoa egiazkoa den.
- c) Cartas al director: kasu horretan hedabidearen erantzukizuna bakarra da: Egilearen identifikazioa bermatzea. Medio bezala egiaztatu behar duzu pertsona hori nor den.
- d) Sare sozialetan c) puntuaren antzeko gauza gertatzen da. Kontrol nahikoa jartzeko betebeharrak dago. Medio digital batean foro bat sortzen denean, edukiak eta identifikazioa bermatzeko medioak zehaztu eta jarri behar dira. Jartzen ez badira erantzule izan daiteke foroak eratu duen medioak.

3. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA Vs. INTIMITATEA:

i. Egiazkotasun printzipioa ez da kontuan hartu behar, izan ere egitateak egiazkoak izan behar dira itimitatea urratzeko. Gezurra baldin bada ohorea urratzen da baina ez intimitatea.

ii. Aztertuko den gauza bakarra nabarmentasun publikoa izango da:

- a) Kontuan hartu behar da aurretiaz informazio bat argitaratuta egoteak ez du esan nahi informazio hori sentibera ez denik. Hau da, info bat publikatuta egotea aurretiaz, horrek ez du esan nahi info horrek kalte egin ezin duela. Nahizta sarean edo publikatuta egon, kalte eman dezakeelako informazio horrek.

- b) Pertsonaia publikoek intimitatea daukate. kasu hauetan ere bai kontuan hartu behar da nabarmentasun publikoaren (hau da, interes orokorraren) irizpidea.
- c) Kontuan hartu beharko da pertsonaren aurretiazko jarrera (???)
- d) Kontuan hartu beharko da argitaratu den informazioaren edukia (oso sentibera den edo ez).
- e) Informazioa nola jaso den, adostasunarekin jaso den edo ez. Zure adostasuna duen ala ez.
- f) Kontuan hartu beharko da kaltetua non zegoek, leku publiko batean edo ez.

4. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA Vs. IRUDIA:

- i. Kontuan hartu guri dagokigunean babeste dan irudi pertsonala eta ez ekonomikoa (derechos de imagen). Baizik eta duintasuna urratu dezakeena.
- ii. Kontuan hartu pertsonaia publikoa den ala ez.
- iii. Kontuan hartu beharko dugu leku publiko batean jaso den irudia ala ez.
- iv. kontuan hartu beharko da irudia nola jaso den. Adostasunarekin, adostasun gabe...
- v. Eta batez ere, kontuan hartu beharko da nabarmentasun publikoaren irizpidea. Irudiaren erabilerak interes orokor bati erantzuten dion ala ez.

4. AZKEN PUNTUA DA ERANTZUKIZUN ZIBILA, PENALA EDO ADMINISTRATIBOA SORTUKO DUEN ARGITARATUKO DUGUNAK